


# SL-Gi 4002

## Faunaren ibilbidea

5,8 Km / 2 h

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.

## SL-Gi 4002

### Faunaren ibilbidea

Pottokak, betizuak, orkatzak, oreinak... ikusiko ditugu. Pottokak eta betizuak desagertzeko zorian dauden etxeko animaliak dira, basoko fauna izan zena etxekotzearen lekuko biziak. Familia guztiak goza dezakeen ikuskizuna, etxeko txikienek batez ere. Ibilbidea baso naturalen eta landatuen artetik igarotzen da, eta Laurgaingo santutxoak babesten ditu inguruak.

Veremos Pottokas, betizus, corzos, ciervos... las dos primeras son razas de animales domésticos en peligro de extinción, testigos vivos de la domesticación de la fauna silvestre. Algo que puede disfrutar toda la familia, especialmente los niños. El recorrido discurre tanto por bosques naturales como por otros procedentes de plantación y el humilladero de Laurgain protege el entorno.




## Interes puntuak | Puntos de interés



**a** LAURGAINGO SANTUTXOA: Bizkar baserrira bidean dagoen, hiru pareta ireki dituen, tenplete bat da. Bertan harrizko hiru gurutze zeuden baina, gaur egun, Kristoren pasioko elementuekin apaindutako erdiko gurutze bikaina besterik ez dago. Eliztarrak, Gurutze Santuaren festan, San Migelgo elizatik "Kalbario" izeneko Santutxo honetaraino prozesioan etortzen ziren. Gune honetan lau ebanjelioak errezatzen zituzten.

HUMILLADERO DE LAURGAIN: Se trata de un templete, abierto por tres de sus paredes, situado camino del caserío Bizkar. En él había tres cruces de piedra, aunque hoy en día solo queda la magnífica cruz central adornada con elementos de la Pasión. Por la fiesta de la Santa Cruz, los feligreses se trasladaban en procesión desde la Iglesia de San Miguel hasta este humilladero llamado "Kalbarioa". Lugar donde se rezaban los cuatro evangelios.



**b** LAURGAIN: Pagoeta Natura Parkearen zati handi bat Aiako auzo honen eremuaren barnean dago, baita Iñurritza Babestutako Natura Paisaiaren zati bat ere. Laurgainen interes handiko hainbat eraikin daude, besteak beste: Laurgaingo Jauregia, Gorostiola baserria, Agorregiko burdinola edota Iturraran baserria. Urriko lehen igandean nesken festa ospatzen zen, akordeoi jolearen emanaldi batean zetzan herriko plazan edo Tolare etxean.

LAURGAIN: Gran parte del Parque Natural de Pagoeta está en tierras de este barrio de Aia, y también parte del Paisaje Natural Protegido de Iñurritza. En Laurgain hay varios edificios de gran interés como son el Palacio de Laurgain, el caserío Gorostiola, la ferrería Agorregi o el caserío Iturraran. El primer domingo de octubre se solía celebrar la fiesta de las jóvenes o "neska festa", que consistía en una actuación del acordeonista en la plaza o en la casa Tolare.



**c** OREINAK: Garai batean Sarrola baserriaren inguruan bizi ziren oreinak Kristina Enea parketik ekarritako oreinen ondorengoak ziren. Gaur egun Pagoeta Natura Parkean ikus daitekeen edozein orein jatorri basatikoa izango da. Animalia hauen berezko habitata baso ireki samarrak dira, adarkadura handiak ez direlako egokiak landaredia hertsiagoko guneetan. Bere dietaren oinarrian belarra, hostoak eta sustraiak daude, ezkurrak ere jaten dituen arren.

CIERVOS: Los ciervos que vivían en torno al caserío Sarrola eran descendientes de los que trajeron del parque Cristina Enea. Cualquier ciervo que se observe hoy en día en el Parque Natural de Pagoeta será de origen salvaje. El hábitat propio de estos animales son los bosques abiertos, por qué las zonas de bosque más cerrado no son adecuadas para la cornamenta. En la base de su dieta están la hierba, las hojas y las raíces, aunque también se alimenta de bellotas.



POTTOKAK: Antzina baserriko lanetarako erabiltzen ziren zaldi txiki eta langileen arraza berreskuratzeko ingurunea da Sarrola. Pottokak bertako eta berezko poni motako zaldiak dira. Espeziearen jatorria azken izotz aroaren ondoren Mendebaldeko Europan biziraun zuten poni motako zaldietaraino jarrai daiteke. Euskal Herriarekin izan duten loturaren erakusle dira, baita ere, bertan, haien inguruan, dauden hainbat kondaira eta mito.

POTTOKAS: Sarrola es el entorno para recuperar la raza de estos caballos pequeños y trabajadores que antaño se utilizaban para el trabajo en los caseríos. Las "pottokas" son un tipo de poni autóctono. El origen de la especie se remonta a los caballos de tipo poni que sobrevivieron en el Oeste de Europa a la última glaciación. La relación que han tenido con Euskal Herria se refleja en la multitud de leyendas y mitos que existen aquí alrededor de ellos.



BETIZUAK: Behi basatiak, txikiak eta gogorrak dira. Gaur egungo behien arbasoak izan daitezkeen horiek, Gipuzkoako mendietan zehar aske dabiltza oraindik ere. Etimologiari dagokionez, badirudi, "behi izua" izan daitekeela izenaren jatorria, inor ikusi orduko ihes egiteko duten joeragatik. Pottokekin gertatzen den moduan, betizuak ere maiz agertzen dira euskal mitologian zein elezaharretan behi itxura hori duten jenioetan irudikatuta.

BETIZU: Son vacas salvajes, pequeñas y fuertes. Esto animales, que pueden ser los antepasados de las vacas actuales, todavía viven libres en los montes de Gipuzkoa. El significado etimológico del nombre podría ser "behi izua" (behi=vaca; izua=asustadiza), debido a su tendencia a huir ante la sospecha de cualquier presencia. Al igual que sucede con las pottokas, los betizus también aparecen a menudo en la mitología y las leyendas vascas, representados como genios en forma de ese tipo de vaca.

## Profila
Perfil




Luzera | Longitud
5,8 km

Desnibela | Desnivel
+270 m / -268 m

## MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE | + info MIDE |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 2 | 2 h | www.mide.montanasegura.com |
| Inguruan arriskuak egon daitezke | Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena | Mandabideak | 1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia | (( 112 )) SOS DEIAK | |
| El medio no está exento de riesgos | Sendas o señalización que indica la continuidad | Marcha por caminos de herradura | De 1 a 3 horas de marcha efectiva | | |

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

## + INFO

Praktika onen dekalogoa
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
Trackak eskuragarri
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Aisia-lekua**
Area recreativa